



EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA GENERO-IKUSPEGIRAKO I. PLANA BASQUE TEAM-EN 2020-2024

| | |
|---|----|
| EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA GENERO-IKUSPEGIRAKO I. PLANA BASQUE TEAM-EN 2020-2024 | 2 |
| PLANAREN IRAUPENA..... | 2 |
| LAN-ARDATZAK ETA HELBURUAK | 2 |
| BERDINTASUNERAKO PLANA EZARTZEKO, HAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO BERDINTASUN BATZORDEA..... | 3 |
| EZARTZEKO AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK | 4 |
| 1. ARDATZA - GOBERNANTZA..... | 5 |
| G1. KONPROMISOA..... | 5 |
| G2. GAITZEA..... | 6 |
| G3. LAN-PROZEDURAK | 6 |
| G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA | 9 |
| 2. ARDATZA - AHALDUNTZEA..... | 11 |
| E1. AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA | 11 |
| E2. AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA | 11 |
| 3. ARDATZA - ERALDAKETA EKONOMIKOA ETA SOZIALA..... | 12 |
| TES1. BERDINTASUNA, ERALDAKETARAKO BEHARREZKO BALIO GISA | 12 |
| TES2. AUTONOMIA EKONOMIKOA | 12 |
| TES3. ZAINKETA EKONOMIA | 13 |
| 4. ARDATZA - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK | 14 |
| VLV1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA..... | 14 |
| VLV2. ANTZEMATEA, ERANTZUTEA ETA KONPONTZEA | 14 |
| VLV3. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA | 14 |

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ETA GENERO-IKUSPEGIRAKO I. PLANA BASQUE TEAM-EN 2020-2024

PLANAREN IRAUPENA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Genero Ikuspegirako Plana 2020an jarriko da abian, eta 2024an amaituko da, ziklo olinpikoaren arabera.

LAN-ARDATZAK ETA HELBURUAK

Honako lan-ardatz eta -helburu hauek planteatzen dira, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean hartutako egitura kontuan hartuta:

| 1. ARDATZA - GOBERNANTZA | |
|--|---|
| G1. KONPROMISOA | G1.1. Genero-ikuspegia txertatzen duen barne-araudia izatea. G1.2. Berdintasunaren arloko jardueretarako berariazko aurrekontua izatea. G1.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta genero-ikuspegirako plan sistematizatua izatea, eta plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko baliabideak ematea. |
| G2. GAIKUNTZA | G2.1. BATeko langileak berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan gaitzea erraztea. |
| G3. LAN-PROZEDURAK | G3.1. Genero-ikuspegia txertatzen duten estatistikak eta azterlanak izatea. G3.2. Barne-kudeaketako eta pertsonen kudeaketako prozedurak izatea, berdintasuna bermatzeko elementuak barne hartzen dituztenak. G3.3. Komunikazio ez-sexistari ekitea eta berdintasunaren arloko eduki espezifikoak garatzea. G3.4. Genero-ikuspegia zeharka txertatzen duten programak eta zerbitzuak garatzea. G3.5. Genero-ikuspegia duten sektorekako eta zeharkako planetan parte hartzea. G3.6. BATekin sinatutako kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea. |
| G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA | G4.1. Berariaz berdintasunaren arloan lan egiten duten inguruko eragileekin lankidetzan aritzea. G4.2. Beste eragile batzuekin lankidetzeta-harremanak ezartzea, kirolaren esparruan berdintasuna sustatzeko. |

| 2. ARDATZA - AHALDUNTZEA | |
|---|--|
| E1. AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA | E1.1. Kirol-eremuan emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa babestea. |

| | |
|--|--|
| E2. AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKOA | E2.1. Emakumeen ahalduntze politikoa babestea, kirolaren eremuko eragin-, erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan. |
|--|--|

| 3. ARDATZA - ERALDAKETA EKONOMIKOA ETA SOZIALA | |
|---|--|
| TES1. BERDINTASUNA, ERALDAKETARAKO BEHARREZKO BALIO GISA | TES1.1. Haurren kirol-bokazioen eremuan hezkidetzak bultzatzea. TES1.2. Kirol-erakundeen antolaketa-kulturak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lerrokatzen laguntzea. |
| TES2. AUTONOMIA EKONOMIKOA | TES2.1. Kirolaren esparruan eta kirolarientzat emakumeen enplegua sortzen laguntzea. |
| TES3. ZAINKETEN EKONOMIA | TES3.1. Emakume eta gizon kirolarien zaintza-lanak babestea eta balioestea. |

| 4. ARDATZA - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK | |
|---|---|
| VLV1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA | VLV1.1. Kirolaren arloan emakumeen aurkako indarkeria eta jazarpena prebenitzeko sentsibilizatzea eta prestatzea. |
| VLV2. ANTZEMATEA, ERANTZUTEA ETA KONPONTZEA | VLV2.1. BATen eragin-eremuan emakumeen aurkako indarkeria-kasuen prebentzioa eta jarduera bermatzea. |
| VLV3. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA | VLV3.1. Erakundeekin lankidetzan aritzea, kirolaren esparruan emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko. |

BERDINTASUNERAKO PLANA EZARTZEKO, HAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA EBALUATZEKO BERDINTASUN BATZORDEA

Lantaldea honako hauek osatzen dute:

- Olatz Legarza, BATEko koordinatzailea, eta Plana bultzatzeko arduraduna.
- Idoia Eskurza. **Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Saileko goimailako teknikaria**
- Silvia Muriel Gómez. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak homologatutako aholkularia

Urtean gutxienez **bi bilera** egingo dira, bat ekitaldiko ekintzak diseinatzeko eta beste bat ebaluatzeko edo doitzeko.

Planeko ekintzak abian jartzeko, jarduerak behar bezala garatzeko egokitzat jotzen diren bilera guztiak egin ahal izango dira.



EZARTZEKO AURREIKUSITAKO BALIABIDEAK

BASQUETEAM FUNDAZIOAK inbertsio-ahalegin handia hartzen du bere gain, ekintza batzuk ezartzeak izan dezakeen kostu ekonomikoak eta kudeaketa globalak eta barne-ezarpenak (pertsonek kopurua eta ordu kopurua) izango duten dedikazioak eraginda.

- **Kanpoko kostu ekonomikoa:** planeko neurriak ezartzen laguntzeko 25.000 €-ko kanpo-kostua kalkulatzen da
- **BASQUETEAMeko pertsonen parte-hartzeak eragindako kostua:** BASQUETEAMeko pertsonen Planaren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan izango duten benetako dedikazioa ezezaguna bada ere, bai eta ekintza jakin batzuen exekuzioa ere, non plantillako pertsonak egon beharko diren, planteatzen da ekitaldi bakoitzaren hasieran egitea dagokion soldata-gastuaren kalkulua, inbertsio gisa ulertuta. Hasieran, Batzordea osatuko duten bi pertsonen lan-kostua zenbatetsi da: 4.500 € inguru urtean.

1. ARDATZA - GOBERNANTZA

G1. KONPROMISOA

G1.1. Genero-ikuspegia txertatzen duen barne-araudia izatea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|---|-----------|--------|
| 1 | <p>Barne-funtzionamenduaren eta lanbide-jardunarekin lotutako balioen eta portaeren jarraibideak jasotzen dituzten dokumentuak egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"> Harrera-eskuliburua. Kode etikoa. <p>2030 Agendaren berezko balioak hartu beharko dira kontuan, eta berdintasunaren arloko berriazko erreferentziak sartu beharko dira (EA Erako VII. Plana edo ondorengo erreferenteak).</p> | <p>Landutako dokumentuak.</p> <p>Hartzaileak.</p> | Aza. 2020 | OL |

G1.2. Berdintasunaren arloko jardueretarako berriazko aurrekontua izatea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|--------------------------|-------------------------|--------|
| 2 | Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko jardueri urteko aurrekontua ematea. | Aurrekontua. | Urr. 2020-21-22-23-24 | OL |
| 3 | BAT beken eragin ekonomikoa sexuaren arabera banakatzea. | Adierazle erabilgarriak. | Ekaina 2020-21-22-23-24 | OL |
| 4 | BATen aurrekontua eta eragin ekonomikoa banakatzea neguko eta udako kiroletan, eta kirol konbentzional eta egokituan, eta biak ere kirolarien sexuaren arabera. | Adierazle erabilgarriak. | Urr. 2020-21-22-23-24 | OL |

G1.3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta genero-ikuspegirako plan sistematizatua izatea, eta plana ezartzeko eta haren jarraipena egiteko baliabideak ematea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|----------|------------|------|--------|
|-----|----------|------------|------|--------|

| | | | | |
|---|---|-------------------------|---|----|
| 5 | Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta genero-ikuspegiarako plan bat onartzea, EAEko VII. Planaren orientabideak eta legegintzaldiko hurrengo planak kontuan hartuta. | Indarrean dagoen plana. | Maiatza 2020 | OL |
| 6 | Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Lankidetzaren Erakunde gisa Emakundek emandako aitorpena lortzea. | Aitorpena. | Ekaina 2020 | OL |
| 7 | Erakunde laguntzailearen aitorpena ezagutaraztea, trazio-efektua errazteko. | Zabalkundea. | Uztaila-Abuztua-Iraila 2020 (JJOO eta JJPP) | OL |

G2. GAITZEA

G2.1. BATeko langileak berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan gaitzea erraztea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|---|------------------|--------|
| 8 | BATeko langileek eta CPTko zerbitzu teknikoak berdintasunari buruzko prestakuntza jasotzea. | Orduak. Prestatutako pertsonak. | 2021-22-23 | OL |
| 9 | Laguntza tekniko aditua izatea genero-ikuspegia duten lan-tresnak garatzeko. | Laguntza teknikoa. Garatutako tresnak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

G3. LAN-PROZEDURAK

G3.1. Genero-ikuspegia txertatzen duten estatistikak eta azterlanak izatea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|---------------------------|-----------|--------|
| 10 | Sexuaren aldagaia bereizita duten pertsonen buruzko estatistika-erregistro guztiak edukitzea. | Adierazle adierazgarriak. | Abe. 2020 | OL |
| 11 | 2009an egindako BATeko goi-mailako kirolarien egoerari buruzko azterlana eguneratzea, aztertutako aldagaiak | Azterlana. | 2020 | OL |

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| | errepikatuz eta duela gutxi interesgarriak diren beste aldagai batzuk gehituz. | | | |
|--|--|--|--|--|

G3.2. Barne-kudeaketako eta pertsonen kudeaketako prozedurak izatea, berdintasuna bermatzeko elementuak barne hartzen dituztenak.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|---|-----------|--------|
| 12 | Pertsonak kudeatzeko erreferente bat izatea, BATen lan-harremanen esparrua izan dadin bere pertsonetako. | Lan-harremanen esparrua. | Eka. 2020 | OL |
| 13 | Hala badagokio, berdintasunaren ziurtapena eta genero-inpaktu ez-diskriminatzailea hobetu dezaketen lan-harremanen esparru horretako elementuak identifikatzea. | Lan-harremanen esparruaren berrikuspenak. | Eka. 2020 | OL |

G3.3. Komunikazio ez-sexistari ekitea eta berdintasunaren arloko eduki espezifikoak garatzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|-----------------------------------|------------------|----------|
| 14 | Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista izatea BATek prestatutako edukietan eta antolatutako ekitaldi edo ekitaldietan, eta BATeko kirolariei tratu orekatua ematea, kirolariek gizartean duten ikusgarritasunaren desoreka gaindituz. | Landutako edukiak. | 2020-21-22-23-24 | OL EE |
| 15 | Ekintza positiboa egitea, hala dagokionean, BATeko kirolariak gehiago jendaurrean jartzeko. Neguko modalitatean eta kirol egokitan emakumeen presentzia desberdina dagoela ere kontuan hartzea. | Landutako edukiak. | 2020-21-22-23-24 | OL EE |
| 16 | Berdintasunaren arloko ikus-entzunezko eduki espezifikoak sortzea, hitzordu esanguratsuak direla eta, adibidez, martxoaren 8a eta azaroaren 25 ^a . | Landutako edukiak. | 2020-21-22-23-24 | OL EE |
| 17 | Komunikazio-arloan enpresa hornitzaileak inplikatzea, beren zerbitzuetan komunikazioaren erabilera ez-sexista txerta | Kontratuetan sartutako klausulak. | 2020-21-22-23-24 | OL EE |

| | | | | |
|--|--|--|--|--|
| | dezaten, kontratuan berariazko erreferentziak txertatuz. | | | |
|--|--|--|--|--|

G3.4. Genero-ikuspegia zeharka txertatzen duten programak eta zerbitzuak garatzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|--|------------------|----------|
| 18 | Laneratze ko programan, kirolarien presentzia orekatua ziurtatzea antolatzen diren enpresekin egiten diren ekitaldietan edo topaketetan. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |
| 19 | 2020-2024ko Udako Jokoen ziklo olinpikorako, BATEk bultzatzen dituen bikaintasun-proiektu guztietan emakumeen presentzia bermatzea. | Kirol proiektuak. Proiektuetako kirolariak. | 2020-21-22-23-24 | OL IE |
| 20 | 2022-2026ko Neguko Jokoen ziklo olinpikorako, BATEk bultzatzen dituen bikaintasun-proiektu guztietan emakumeen presentzia bermatzea, eta 2026ko neguko Joko Olinpikoetan emakumeen parte-hartzea bultzatzea. | Kirol proiektuak. Proiektuetako kirolariak. | 2020-21-22-23-24 | OL IE |
| 21 | #baloreetanBAT programan, kirolarien presentzia orekatua ziurtatzea antolatzen diren ekitaldi edo topaketetan. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |
| 22 | Ikastetxeetara iristeko programan, eta neskek eta gazteek kirolarekin lotutako bokazioak uztea murrizteko, kirolarien presentzia orekatua ziurtatzea antolatzen diren ekitaldi, hitzaldi edo topaketetan. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

G3.5. Genero-ikuspegia duten sektorekako eta zeharkako planetan parte hartzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|--------------|------------------|--------|
| 23 | Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren berdintasun-arloko plan eta jardueretan parte hartzea. | Actividades. | 2020-21-22-23-24 | OL |

G3.6. BATEkin sinatutako kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak sartzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|--------------------------------------|------------------|--------|
| 24 | Berdintasunaren arloko klausula sozialak txertatzea BATen erosketa-prozesuan. | Klausulak. Eraginpeko kontratuak. | 2020-21-22-23-24 | OL |
| 25 | Hitzarmen eta kontratuetan emandako hizkuntzaren erabilera berrikustea eta, hala badagokio, zuzentzea: <ul style="list-style-type: none"> Federazioekiko lankidetzaren hitzarmena bikaintasuneko kirol-proiektuetarako. Kirolariak laneratzeko erakundeekiko lankidetzaren hitzarmena. #baloreetanBAT proiektuko kirolariekin egindako kontratua. | Dokumentuak. | 2020 | OL |
| 26 | baloreetanBAT proiektuko kirolariekin egindako kontratua hedatu beharreko balioak gehiago zehaztea, berariaz aipatuz kirolean emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia dutenak. Era berean, kontratua azkentzeari eta ez betetzeari buruzko artikuluetan balio horiek ez betetzea zehaztea. | Dokumentuak. | 2021 | OL |
| 27 | #baloreetanBAT proiektuko kirolariekin egindako kontratua sartzeko, lanaldi edo lan-ordutegi bat aurrez finkatzea ezinezkoa denez, kirolarien kontziliazioa erraztuko dela, garatuko diren jardueren testuinguruan. Prestasuna BATeko lanaldiaren barruan izango da. | Dokumentua. | 2021 | OL |
| 28 | #baloreetanBAT proiektuko kirolariekin egindako kontratua hedatu beharreko balioak gehiago zehaztea, eta berariaz aipatzea kirolean emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia dutenak. | Dokumentua. | 2021 | OL |

G4. KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

G4.1. Berariaz berdintasunaren arloan lan egiten duten inguruko eragileekin lankidetzan aritzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|------------|------------------|--------|
| 29 | Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako eta Euskal Kirol Federazioen Batasuneko emakumeen eta gizonen berdintasunaren ardura duten egiturekiko koordinazio teknikoari eustea, eta | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

| | | | | |
|----|--|------------|------------------|----------|
| | lankidetza eskatzen zaien beste eragile horien jardueretan parte hartzea. | | | |
| 30 | Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpaina instituzionalak zabaltzen laguntzea. | Kanpainak. | 2020-21-22-23-24 | OL EE |
| 31 | Inguruko erakundeek (hala nola Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, eta sor daitezkeen beste batzuk ere) berdintasunaren eta kirolaren arloan antolatutako jarduerak, jardunaldiak edo foroak egiten laguntzea. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |
| 32 | Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Begira Sarearen publizitaterako kode deontologikoa onartzea, publizitate eta komunikazio ez-sexista egiteko. | Kodea | 2021 | OL EE |

G4.2. Beste eragile batzuekin lankidetza-harremanak ezartzea, kirolaren esparruan berdintasuna sustatzeko.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|---------------------------------|------------------|--------|
| 33 | Estatuko, Europako eta nazioarteko esparruetan goi-mailako kirolari ematen zaion laguntzan genero-ikuspegia txertatzeko esperientziak identifikatzea, intereseko jardunbide egokiak identifikatuta eta eragile horiekin lankidetza-harremanak ezarrita. | Identifikatutako esperientziak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

2. ARDATZA - AHALDUNTZEA

E1. AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA

E1.1. Kirol-eremuan emakumeen ahalduntze pertsonala eta kolektiboa babestea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|------------------------------------|------------------|--------|
| 34 | Genero-ikuspegidun komunikaziorako prestatzea@baloreetanBAT kirolariak eta erantzukizun teknikoak edo betearazleak dituzten edo erabaki-esparruetan egoteko gertu dauden euskal kirolaren eremuko beste emakume batzuk. | Orduak. Prestatutako pertsonak. | 2020-21-22-23-24 | OL |
| 35 | Desgaitasunaren edo dibertsitate funtzionalaren eremuko erakundeekin lankidetzan aritzea, dibertsitatea duten emakumeen artean goi-mailako kirola egin dadin. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

E2. AHALDUNTZE SOZIALA ETA POLITIKOA

E2.1. Emakumeen ahalduntze politikoa babestea eragin-, erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|----------------------------------|-----------|--------|
| 36 | Kirol-arloko emakumeentzako prestakuntza-eta ahalduntze-prozesuak babestea, kirol-erakundeetan zuzendaritza-postuak betetzeko. | Jarduerak. Parte hartzaileak. | 2022-2023 | OL |

3. ARDATZA - ERALDAKETA EKONOMIKOA ETA SOZIALA

TES1. BERDINTASUNA, ERALDAKETARAKO BEHARREZKO BALIO GISA

TES1.1. Haurren kirol-bokazioen eremuan hezkidetzak bultzatzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|-------------------------------|---------------|--------|
| 37 | Neskei eta mutilen kirol-erreferenteak erakusteko eta kirol-jarduerarekin lotutako estereotipoak hausteko dakartzaten ekimenak garatzea edo horiekin lankidetzan aritzea. | Jarduerak. | 2021-22-23-24 | OL |
| 38 | #baloreetanBAT-eko enbaxadoreen kolektiboan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzea. | Presentzia. | 2021-22-23-24 | OL |
| 39 | #baloreetanBAT programako kirolariak prestatzea 2030eko Agendan eta oinarriko kontzeptuetan, arlo hauetan: emakumeen eta gizonen berdintasuna, osasuna eta ongizatea, jarduera fisikoa... | Orduak. Parte hartzaileak. | 2021-22-23-24 | OL |

TES1.2. Kirol-erakundeen antolaketa-kulturak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lerrokatzen laguntzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|-------------------------------|------------------|--------|
| 40 | Euskal kirol-erakundeen prestakuntza bultzatzea, 3K kudeaketa aurreratuko ereduaren genero-ikuspegia txerta dezaten. | Orduak. Parte hartzaileak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

TES2. AUTONOMIA EKONOMIKOA

TES2.1. Kirolaren esparruan eta kirolarientzat emakumeen enplegua sortzen laguntzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|------------|------------------|--------|
| 41 | Laneratzeko programari eustea, plantilletan emakumeak sartzeko interesa duten enpresak edo erakundeak identifikatzea eta lankidetzak espezifikoak planteatzea. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

TES3. ZAINKETEN EKONOMIA

TES3.1. Emakume eta gizon kirolarien zaintza-lanen balioa nabarmentzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|--------------------------|---------------|--------|
| 42 | BATeko kirolarien zaintza-beharrak eguneratuta ezagutzea, BASQUETEAMekin sinatutako kontratu-sinadura bakoitzarekin bete beharreko formulario baten bidez. | Adierazle eskuragarriak. | 2021-22-23-24 | OL |
| 43 | BATeko kirolariengan dauden zaintza-beharrak ikusaraztea. Era berean, zaintza-lanak beren gain hartzen dituzten eta kirola egiteari uzten ez dioten gizon eredugarriak erakusten saiatzea. | Edukiak. | 2021-22-23-24 | OL |

4. ARDATZA - EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

VLV1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

VLV1.1. Kirolaren arloan emakumeen aurkako indarkeria eta jazarpena prebenitzeko sentsibilizatzea eta prestatzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|------------|------------------|--------|
| 44 | Kirolaren arloan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta sentsibilizatzeko hitzaldi eta saioretan parte hartzea. | Jarduerak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

VLV2. ANTZEMATEA, ERANTZUTEA ETA KONPONTZEA

VLV2.1. BATen eragin-eremuan emakumeen aurkako indarkeria-kasuen prebentzioa eta jardura bermatzea.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|---|-----------------------|------------------|--------|
| 45 | BATen eragin-eremuan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko egoerak prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko protokolo bat egitea. | Protokoloa. | 2020 | OL |
| 46 | Protokolo hori abian jartzeko behar den prestakuntza izatea. | Orduak. Pertsonak. | 2020-21 | OL |
| 47 | Zure Taldekoak Gara-ri emandako laguntzari eustea. | Baliabideak. | 2020-21-22-23-24 | OL |

VLV3. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

VLV3.1. Erakundeekin lankidetzan aritzea, kirolaren esparruan emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko.

| Zk. | Jarduera | Adierazlea | Data | Ardur. |
|-----|--|------------|------------------|--------|
| 48 | Kirolaren esparruan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, informazio interesgarria eta jardunbide egoki ezagunak emanez, edo indarkeria hori aurre egiteko erakundeen arteko eremuan antzemandako hobekuntza-beharrak salatuz. | Jarduerak | 2020-21-22-23-24 | OL |